



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko abuztuaren 2an

82 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).
- Mendigorriko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (21. or.).

G Saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 28an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Atarrabiako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (2. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (3. or.).
 - IV.1. 1999ko aurrekontuaren likidazioa (3. or.).
 - IV.2. Ondare-egoeraren agerpena 1999ko abenduaren 31n (3. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (3. or.).
 - IV.4. Erakunde autonomoa. Udalaren kirol patronatua. (3. or.).
 - IV.5. Egoera ekonomiko-finantzarioa 1999ko abenduaren 31n (4. or.).
- V. Finantza egoera-orriak (4. or.).
- VI. Iruzkin, ondorio eta gomendio orokorrak (8. or.).
 - VI.1. 1999ko gastuen aurrekontua (8. or.).
 - VI.2. 1999ko diru-sarreraren aurrekontua 10. or.).
 - VI.3. Egoeraren balantzea 1999ko abenduaren 31n (14. or.).

VI.4. Erakunde autonomoa. Udalaren kirol patronatua. (15. or.).

VI.5. Hirigintza. (15. or.).

Gehigarria (16. or.).

I. eranskina. Atarrabiako Udalaren organigrama 1999ko abenduaren 31n (18. or.).

II. eranskina. Erabilitako ratioak (19. or.).

Atarrabiako Udalaren **alegazioak**. (20. or.).

I. SARRERA

Atarrabia Iruñerrian dago eta, 2000ko urtarrilaren 1eko udal-eroldaren arabera, zuzenbidezko 9.379 biztanle ditu.

Udalak bere jarduerak egiteko kirol patronatua erakunde autonomoa du.

Bestalde, udala Iruñerriko Mankomunitatearen barruan dago, –horrexek egiten du ur-hornidurako, hiri hondakin solidoen tratamendurako eta eskualdeko garraioko zerbitzuen erabateko kudeaketa-.

Hauek dira udalaren eta haren erakunde autonomoaren 1999ko ekitaldiko kopururik garrantzitsuenak (oraindik finkatu gabekoak):

	(pezetak, milioitan)	
Entitatea	Betetako aurrekontua, gastuak	Betetako aurrekontua, diru-sarrerak
Udala	893'1	954'8
Kirol Patronatua	85'8	82'5

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Atarrabiako Udalaren eta haren erakunde auto-

moen 1999ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastu eta diru-sarrera aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurretik aipatutako legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, administrazio-kontratazioari nahiz hiri-gintza-kudeaketari buruzko arauak (ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeak esaterako) eta Nafarroako toki-enteei orokorki aplikatzekoak zaizkien gainontzeko arauak.

Kontabilitate eta aurrekontu gaietako araubide juridikoa Nafarroako toki administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuetan ezartzen da. Halere, 1999an araubide hori aplikatzea borondatezkoa zen, eta nahitaezko bilakatuko zen 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Txostenak helburu du gure iritzia agertzea honako puntu hauei buruz:

- Atarrabiako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- 1999ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera islatzea, oro har onartzen diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.
- Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egin ote den.
- Zein zen udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera 1999ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganbarak Atarrabiako Udalaren 1999ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Espainiako Estatuko kanpo kontrolerako organo publikoak koordinatzeko batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta arauak jarraituz burutu dugu lana eta halaber, egoeraren arabera beharrezkotzat jo ditugun frogak guztiak ere egin ditugu.

Udalari eta haren erakundeei buruzko lanak haxe izan du arretagai: diru-sarrerari eta gastuei buruzko atal ekonomikoak eta abenduaren 31ko egoeraren balantzea berrikustea, eta antolaketari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertzea.

Txosteneko sei ataletan zehar, Atarrabiako Udalaren eta haren erakundearen antolaketa, barne-kontrola, eraginkortasuna eta ekonomia hobetzeko egokitzat jo ditugun helburu, iritzi, ondorio eta gomendio orokorrak bildu dira, batez ere. Atal horiez gain bada gehigarri bat, entitateak 1999ko abenduaren 31n duen finantza egoerari buruzkoa, eta bi eranskin, data horretako entitatearen organigramari eta txostenean erabilitako ratioei buruzkoak.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei.

IV. IRITZIA

Egindako fiskalizazioaren esparruan, Atarrabiako Udaleko eta haren erakunde autonomoetako 1999ko ekitaldiko finantza-egoeraren orriak aztertu ditugu. Egoera-orri horiek udalaren ardura-pean burutu ziren; laburtuta bildu ditugu txosten honetako V. atalean.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko kanpo kontrolerako organo publikoak koordinatzeko batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

IV.1. 1999ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA DELA-ETA

1999ko aurrekontuaren likidazioaren egoerak ongi agertzen ditu ekitaldiko diru-sarrera eta gastuak.

IV.2. ONDARE-EGOERAREN AGERPENA 1999ko ABENDUAREN 31n

Ibilgetu, zordun eta diruzaintza alorretan ez dago barne kontrol egokirik, eta hortaz ezin dugu iritzirik eman 1999ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpenari buruz.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Atarrabiako Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa dela-eta ikusi dugu batzuetan ez direla kontratazio eta kontabilitate arloetako arauak bete, txostenean ikusiko dugun moduan.

IV.4. ERAKUNDE AUTONOMOA. UDALAREN KIROL PATRONATUA

Erakunde autonomoaren urteko kontuak, oro har, ekitaldian eginiko jardueraren adierazgarri dira.

IV.5. EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 1999ko ABENDUAREN 31n

Atarrabiako Udalaren egoera ondokoa da: diruzaintzako gerakina 71 milioikoa da (23koa zen 1998an), epe luzerako zorra 324 milioikoa (343koa 1998an) eta ehuneko 4ko zorpetze maila (ehuneko 5koa 1998an).

Datu horiek agerian jartzen dute udalak 1999an diruzaintzako gerakina areagotu eta epe luzeko zorra gutxitu duela, batez ere diru-sarrerak arruntak funtzionamendu gastuen gainetik areagotu direlako.

Dena den, diruzaintzako gerakina ez da aski udalak aurreikusi dituen inbertsioak finantzatzeko, eta horrenbestez, mailegu berriak hitzartu behar ko ditu etorkizunean inbertsioak finantzatu nahi baditu.

Laburbilduz, ondorio orokor gisa esan dezakegu udalak hobetu egin behar ko lituzkeela barne kontroleko zein kontabilitateko prozedurak:

- Aurrekontu eta kontabilitate arloko arauak errespetatuz –alegia, diru-sarrerak eta gastuak gertatzen diren unean bertan kontabilizatuz eta aurrekontuen jarraipena aldian-aldian eginez, baliabideak kudeatu eta kontrolatzeko tresna gisa erabiliz horiek–.

- Ondoko arloetako kontrola areagotuz:

- * Ibilgetua eta inbentarioa

- * Zordunak

- * Diruzaintza

- * Abalak eta bermeak

- Kontratazio arloko araudia errespetatuz, batez ere obrak esleitzeari, egiteko epeak kontrolatzeari eta kontratu hartzaileari egotzi beharreko akats zein atzerapenen erantzukizunak eskatzeari buruzkoa.

- Patronatuaren eragiketarako kontabilitate publiko sistemarekin bat etorriaz erregistratuz eta kontu-hartzailetza ezarriz.

- Patronatuaren aurrekontuko urteko likidazioa udalekoarekin eta plantilla organikoarekin batera onetsiz.

- Sektore publikoko kontabilitate plan orokorrean jasotzen den urteko txostena eginez.

V. FINANTZA EGOERA-ORRIAK

Atal hau osatzen dute ondoko finantza egoera-orriek:

- Udalaren 1999ko ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa.

- 1999ko abenduaren 31ko egoerari buruzko balantzea.

- Diruzaintzako gerakina.

- Udalaren erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa (Kirol patronatua).

Atarrabiako Udaleko aurrekontuaren betetze-maila. 1999

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetze-maila

	Kap	Hasierako aurreikuspenak	Alda- ketak	Behin-betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	Betetzea- ren %	Guztiaren gaineko %
Zuzeneko zergak	1	165.010.000	0	165.010.000	178.937.001	108	19
Zeharkako zergak	2	15.000.000	0	15.000.000	88.027.595	587	9
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	3	60.372.000	1.434.986	61.806.986	74.084.616	120	8
Transferentzia arruntak	4	421.690.104	17.531.873	439.221.977	447.928.936	102	47
Ondare eta herri-ondasunetako diru-sar.	5	500.000	0	500.000	1.115.788	223	0
Inbertsio errealak besterentzea	6	70.275.000	0	70.275.000	0	0	0
Transf. eta bestelako kapital diru-sarrerak	7	315.353.519	2.546.988	317.900.507	162.686.925	51	17
Finantza-aktiboak	8	3.000.000	0	3.000.000	2.010.763	67	0
Finantza-pasiboak	9	42.626.594	1.500.000	44.126.594	0	0	0
Diru-sarrerak, guztira		1.093.827.217	23.013.847	1.116.841.064	954.791.624	85	100

Gastuen aurrekontuaren betetze-maila

	Kap	Hasierako kreditua	Alda- ketak	Behin-betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Ordainduta- koaren %	Guztiaren gaineko %
Langileen ordainsariak	1	432.879.055	570.000	433.449.055	419.205.720	97	47
Ondasun arruntzen eta zerbitzuen gastuak	2	139.101.405	9.729.923	148.831.328	142.723.100	96	16
Finantza-gastuak	3	16.754.045	-1.118.164	15.635.881	11.993.155	77	1
Transferentzia arruntak	4	55.691.000	-4.101.742	51.589.258	50.398.905	98	6
Inbertsio errealak	6	427.029.899	17.650.690	444.680.589	247.433.600	56	28
Kapital transferentziak	7	275.000	0	275.000	0	0	0
Finantza-aktiboak	8	3.000.000	0	3.000.000	2.000.000	67	0
Finantza-pasiboak	9	19.096.813	283.140	19.379.953	19.328.572	100	2
Gastuak, guztira		1.093.827.217	23.013.847	1.116.841.064	893.083.052	80	

1999ko abenduaren 31ko egoera balantzea (emaitzak aplikatu baino lehen)

AKTIBOA	99-12-31ko balantzea		98-12-31ko balantzea	
IBILGETU MATERIALA	1.545.994.888		1.443.983.611	
Lurrak eta ondasun naturalak		0		-39.370.083
Eraikinak		1.525.437.947		1.439.325.424
Makinak, instalazioak eta tresnak		1.488.737		22.645.484
Garraio elementuak		3.132.000		3.550.004
Altzariak		2.677.040		7.151.913
Informazio-prozesuetarako ekipoa		10.616.926		8.396.840
Bestelako ibilgetu materiala		200.609		-157.600
Espezializaturiko instalazio konplexuak		2.441.629		2.441.629
IBILGETU EZ-MATERIALA	13.973.873		8.307.064	
Bestelako ibilgetu ez-materiala		13.973.873		8.307.064
AZPIEGITURAK ETA ERABIL. OROKOR. ONDASUNAK	363.742.040		223.986.526	
Lurrak eta ondasun naturalak		6.539.920		5.186.896
Azpiegiturak eta erabilera orokorrerako ondasunak		356.939.603		218.537.113
Herri-ondasunetako inbertsioak		262.517		262.517
IBILGETUA, GUZTIRA	477.598.581		1.676.277.201	
ZORDUNAK	138.975.665		218.008.559	
Aitorturiko eskubideengatiko zordunak		134.199.014		213.826.546
Aurrekontuz kanpoko zordunak		4.776.651		4.182.013
KONTU FINANTZARIOAK	98.698.545		61.529.909	
Aldi baterako inbertsio finantzarioak		3.093.903		3.104.666
Bankuak eta kreditu-erakundeak		95.604.642		58.425.243
ORDENA KONTUAK	35.018.327		47.985.018	
Abalak eta bermeak		30.480.611		43.447.302
Gordailuko baloreak		4.537.716		4.537.716
AKTIBOA, GUZTIRA	2.161.385.011		1.955.815.669	
PASIBOA	99-12-31ko balantzea		98-12-31ko balantzea	
ONDAREA ETA ERRESERBAK	1.034.808.544		1.034.808.544	
Ondarea		1.333.496.384		1.333.496.384
Ondare atxikia		-294.312.516		-294.312.516
Ondare lagatua		-4.375.324		-4.375.324
JASOTAKO KAPITAL DIRULAGUNTZAK	340.863.165		202.758.696	
Jasotako kapital dirulaguntzak		340.863.165		202.758.696
EPE LUZEKO ZORRAK	323.544.328		342.872.900	
Jasotako maileguak		323.544.328		342.872.900
EPE LABURREKO ZORRAK	104.216.089		200.171.301	
Jasotako betebeharren ondoriozko hartzekodunak		1.565.270		1.876.770
Agindutako ordainketen ondoriozko hartzekoduank		65.781.915		175.884.094
Entitate publikoak		11.867.211		13.432.520
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak		25.001.693		8.977.917
APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK	3.735.321		2.846.109	
Aplikatzeko dauden diru-sarrerak		76.019		76.019
Aplikatzeko dauden bestelako kontusailak		3.659.302		2.770.090
EMAITZAK	354.217.564		172.358.119	
Aplikatzeko dauden diru-sarrerak		354.217.564		172.358.119
ORDENA KONTUAK	35.018.327		47.985.018	
Abalak eta bermeak		30.480.611		43.447.302
Gordailuko baloreak		4.537.716		4.537.716
PASIBOA, GUZTIRA	2.161.385.011		1.955.815.669	

1999-12-31ko Atarrabiako Udaleko diruzaintzako gerakinaren egoera

Zenbatekoak (pezetak, milakotan)	
1. (+) Ekitaldi bukaeran kobratzeke dauden zordunak	79.784.259
Diru-sarreraren aurrekontukoa. Indarreko aurrekontua	75.739.909
Diru-sarreraren aurrekontukoa. Itxitako aurrekontuak	58.459.105
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketakoak	4.776.651
Ken kobratzen zailak diren saldoak	(59.191.406)
2. (-) Ekitaldi bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	-104.216.089
Gastuen aurrekontukoa. Indarreko aurrekontua	-62.983.009
Gastuen aurrekontukoa. Itxitako aurrekontuak	-4.364.176
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketakoak	-36.868.904
3. (+) Diruzaintzako funts likidoak ekitaldi bukaeran	95.604.642
5. Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina (1 - 2 + 3)	71.172.812
DIRUZAINZTA GERAKINA, GUZTIRA (1 - 2 + 3)/(5)	71.172.812

Atarrabiako Kirol Patronatua – 1999ko ekitaldia

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetze-maila

	Kap.	Aurrekontua	Aitortua	Guztiaren gaineko %
Kiroldegiko prezioak	3	56.015.350	57.860.688	70
Administrazio orokorraren transf. arruntak. Toki entitatea	4	22.500.000	22.500.000	27
Diru-sarrera finantzarioak	5	2.410.000	2.170.067	3
Administrazio orokorraren kapital transf. Toki entitatea	8	3.360.000	0	0
Diru-sarrerak, guztira		84.285.350	82.530.755	100

Gastuen aurrekontuaren betetze-maila

	Kap.	Hasierako kreditua	Alda-ketak	Behin-betiko kreditua	Aitorturiko betebeharrak	Behin-betikoaren gaineko %	Egindako ordainketak	Guztiaren gaineko %
Langileak	1	46.275.000	439.620	46.714.620	46.675.579	100	45.555.583	54
Ondasun arruntak eta zerb.	2	31226.296	144.368	31.370.664	31.370.664	100	30.594.460	37
Transferentzia arruntak	4	6.225.000	-83.988	6.141.012	6.141.012	100	2.590.042	7
Finantza-pasiboak	9	500.000	1.166.665	1.666.665	1.666.665	100	1.666.665	2
Gastuak, guztira		84.226.296	1.666.665	85.892.961	85.853.920	100	80.406.750	

VI. IRUZKIN, ONDORIO ETA GOMENDIO OROKORRAK

Ondoren aurkeztuko ditugu udalaren eta haren erakunde autonomoen arlo bakoitzeko antolamendua eta barne kontrol sistema hobetzeko iruzkin eta ondorio garrantzitsuenak, bai eta egokitzat jo ditugun gomendio orokorrak ere.

VI.I. 1999KO GASTUEN AURREKONTUA

VI.1.1. Langileen lansariak

Atal honetan aitorturiko betebeharrak 419,2 milioi pezeta egiten dute. Horrek 1999an aitorturiko obligazioen ehuneko 47 egiten du, hots, aurreko ekitaldian baino ehuneko 7 gehiago.

1999ko apirilean onetsitako plantilla organikoaren arabera, udalak ondoko lanpostuak ditu –mailen arabera sailkatuta–:

Maila	Lan-kontratadun		Guztira
	Funtzionarioak	finkoak	
B	3	1	4
C	10	0	10
D	26	9	35
E	3	9	12
Guztira	42	19	61

Plantilla horri aldi baterako 25 kontratudunak gehitu behar zaizkio; hortaz, guztira 86 langile ditu udalaren 1999ko plantillak.

Langileen alorra aztertu ondoren, udalak alor horren kudeaketa eta kontrola hobetu behar dituela uste dugu; hona gura gomendioak:

- *Hileko nominak kontabilizatu eta kontu hartzea, aurrekontua kudeaketarako tresna gisa erabil dadin.*

- *Administrazioarekiko kontratu motaren eta ezaugarrien arabera sailkatu eta kontabilizatzea langileen lansariak.*

- *Plantilla organikoa argitaratu eta bertan jasotzea une horretan dauden lanpostu hutsak, izendapen askekoak eta langileei esleitutako lansari osagarri guztiak.*

- *Babes juridikorik ez duten administrazio kontratudunen antzizinatasa eta mailako lansariak erregularizatzea.*

- *Langile bakoitzeko espediente bat prestatu eta mantentzea; bertan jasoko dira langile horri buruz eman diren administrazio egintza guztiak.*

- *Kontraturik izan gabe zerbitzuak ematen dituzten langileen egoera erregularizatzea.*

- *Langileei nomina aurrerakinak emateko prozedura betetzea.*

VI.1.2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea

Atal honetako gastuak 143 milioi egiten du, hots, 1999ko ekitaldiko gastu osoaren ehuneko 18 eta aurreko ekitaldian baino ehuneko 3 gehiago.

Aurrekontu aldaketek 9,7 milioi egiten dute. Aldaketa horiek, oro har, gastua egin ondotik onesten dira; alegia, ez da arauk ezarritakoa betetzen, eta gainera, horrek zailago egiten du aurrekontua kudeaketarako tresna gisa erabiltzea.

Egindako azterketaren ondorioz, erregistratutako saldoak arrazoizkoak direla ikusi dugu, baina, gure ustez, udalak bere kontrol prozedurak osatu beharko lituzke, gomendio hauen arabera:

Erosketa-gida bat definitzea, alorreko prozedura eta baldintzak jasotzen dituen, arreta berezia jarritz ondokoetan:

- *Gastua kontu-hartzeko prozedura normalizatu.*

- *Zerbitziburuek fakturak berrikustea.*

- *Aseguru polizen kontrola.*

- *Gastua zeri zor zaion behar bezala azaltzea.*

- *Kontratuak eta horien aldaketak formalizatzea.*

- *Kontratuari buruzko Foru Legea hertsiki aplikatzea, esleipen prozedurei dagokienez.*

VI.1.3. Finantza-gastuak eta finantza-pasiboan aldaketa

3 eta 9. ataletako gastuak –udalaren finantza zama– 31 milioi pezeta egiten du, hau da, 1998ko ekitaldian baino ehuneko 4 gutxiago, 32,6 milioi-koa izan baitzen. Finantza-gastuak 12 milioi-koa izan ziren, eta finantza-pasiboena 19 milioi-koa.

Egin dugun azterketaren arabera, atal horietan erregistratutako saldoak arrazoizkoak dira.

VI.1.4. Transferentzia arruntak

Transferentzia arruntek 50,3 milioi pezeta egin dute guztira, hots, ekitaldian aitorturiko betebeharren ehuneko 6, eta aurreko ekitaldian baino ehuneko 12 gehiago. Hona:

Deskribapena	Aitorturiko betebeharrak
Erakunde Autonomoari (Kirol Patronatua)	22.500.000
Nafarroako Foru Komunitateari	249.280
Toki entitateei	4.673.291
Irabazi asmorik gabeko famili eta erakundeei	21.576.334
Kanpora	1.400.000
4. kapitulua, guztira, transferentzia arruntak	50.398.905

Gure azterketaren arabera, zenbateko horiek arrazoizkoak dira. Hala ere, honako gomendio hauek egin ditugu:

- *Udalak kirol patronatuari eta musika eskolari eginiko ekarpenak definitzea.*

- *Deialdirik gabeko laguntzak ematea ekiditea –deialdian laguntzak banatzeko irizpide objektibo -ak zehaztuz, eta ekitaldiaren barruan ebaztea horiek.*

VI.1.5. Inbertsioak

Inbertsioen atalean 247,4 milioiko betebeharrak aitortu dira, eta horietatik ehuneko 56 bete da, hau da, aurreko ekitaldian baino ehuneko 9 gehiago.

Ekitaldian aitortutako betebeharren ehuneko 28 egiten dute atal honetakoek.

Betetze maila apala eraikinen kontusailari zor zaio batez ere; izan ere, kredituen ehuneko 31 baizik ez dira aitortzen ekitaldian.

Atal hau aztertzeko, espediente-lagin hau hautatu dugu –betetzearen ehuneko 78 egiten dute–:

Kontzeptua	Behin-betiko kreditua	Aitorturiko betebeharrak
Saihesbideko II. fasea	99,1	97,1
Eraikinak	254,9	79,3
Azterketak eta proiektuak	7,5	5,7
Bestelako inbertsioak	12,0	11,6
Guztira	373,5	193,7

a) Saihesbideko II. fasea

Nafarroako Gobernuarekiko lankidetzan eginiko obra da. Hona baldintzak:

- Nafarroako Gobernuak 150 milioi pezeta finantzatu ditu gehienez ere, 100 milioi 1998an eta 50 milioi 1999an, hau da, "N-121 bikoiztea Atarra-

biako bide-zatian" obren likidazio aurrekontuaren ehuneko 80.

- Proiektua udalak taxutuko du, hitzarmena sinatzen denetik hiru hilabeteko epean.

- Obra zuzendaritzako eta proiektuko ordainsarien ehuneko 50 Nafarroako Gobernuak finantzatu du.

- Desjabetzapenak Nafarroako Gobernuak egingen ditu.

- Obrak Atarrabiako Udalak kontratatu eta zuzenduko ditu.

Proiektua lehiaketa bidez esleitu dute. Espedientean ez da jaso kontratazio mahaiaren jarduketari buruzko administrazio dokumentazioa: mahaiaren eraketa, aktak, balioespena, esleipena eta abar.

Obren kontratazioak –1998ko irailaren 3ko lehiaketa bidez egin baitzen, 161,4 milioitan– proiektuaren akats berberak ditu; espedientea osatu gabe dago, soilik jaso baita plikak irekitzeko ekitaldiaren laburpen bat eta eskaintzak balioesteko txosten bat, udalak eskatu eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko teknikariek egina.

Obra behin-behinekoz onartzeko akta 1999ko ekainean egin zen, erabakitakoa baino hiru hilabete beranduago, baina ez dago inon jasota udalak epea luzatu zuenik.

2000ko azaroan, atxikitako fidantzak –10 milioi gutxi gorabehera– eskudirutan itzul zekizkion eskatu zuen enpresak, baina udalak, ez daukanez obra zuzendaritzaren ziurtagiria, ez dio diru hori itzuli.

b) Eraikinak: kiroldegia

Nafarroako Gobernuarekiko lankidetzan eginikoa hau ere.

Obrak 1998ko abenduaren 2an esleitu ziren, lehiaketa bidez, 220,5 milioitan; egiteko epea 15 hilabetekoa zen, eta hortaz, 2000ko martxoan bukatu zen epea.

Eskaintzak aurkeztu zirenean, udalak eskatuta, horiei buruzko txostena egin zuten Nafarroako Gobernuko ordezkariak eta arkitekto teknikari laguntzaileak. Balioespen hartan, baldintza pleguan ezarritako irizpideekin bat etorritik, puntuaziorik altuena enpresa jakin batek izan zuen, baina balioespen hari "udalaren intereseko" puntuak gehitu ondoren –txostena egiten duten teknikariak inhibitu egiten dira atal horretan– beste enpresa bat atera zen hartzaile, atal horretan 3,08 puntu eman baitzitzaizkion.

Kontratazio mahaiari buruz espedienteen dagoen dokumentazio bakarra txosten hori da.

Kontratuei buruzko legeriaren arabera, lehiaketako esleipen irizpideek objektiboak behar dute izan, alde aurretik ezarri behar dira administrazio klausulen pleguan eta behar bezala ponderatu behar dira, handitik txikira, garrantziaren arabera. Hala bada, gure ustez, kontratua esleitzeko erabakigarriak izateaz gain nekez objektibatu daitezkeen irizpideak sartzea –hori gertatu da kasu honetan– ez dator bat lehiaketak arautzen dituen araudiarekin.

1999ko urrian –obren epea bukatu eta sei hilabetera–, enpresa adjudikazio hartzaileak txosten bat aurkeztu zion udalari, 1999an lan-eskuaren eta materialen prezioak berebiziko igoera izan zuelako kalte-ordaina eskatzeko. 2000ko martxoan beste idazki bat aurkeztu zuen, zeinean epea luzatzeko eskatu eta kalte-ordaina 43,2 milioi pezetatan ezartzen baitzuen. Udalak txostena eskatu zion obra zuzendaritzari, eta egungo prezioetan oinarritutako aurrekontua prestatu zen –obra egiteko 248,8 milioi pezeta beharko zirela kalkulatu zen–. Hortaz, onetsi beharreko kalte-ordaina 28,3 milioi pezetakoa izan beharko zen. Udalak, osoko bilkuran, zenbateko hori onartzea eta obra egiteko epea 2000ko abuztuaren 8ra arte luzatzea onetsi zuen.

Kiroldegia 2000ko azaroan inauguratu zuten.

Hautatu dugun laginari buruz egin ditugun iruzkinetan oinarrituta, gure gomendia da:

Kontratuei buruzko Foru Legea estu betetzea, hots, obra espedienteak osorik mantentzea, nekez objektibatu daitezkeen irizpideak ekiditea, obrak egiteko epeak eta prezioak kontrolatzea eta kontratu hartzaileari erantzukizunak eskatzea berari egotzi beharreko akats zein atzerapenen -gatik.

VI.2. 1999ko DIRU-SARREREN AURREKONTUA

Kontzeptu guztiengatik aitortutako eskubideek 955 milioi egiten dute, eta horietatik ehuneko 85 bete da.

Diru-sarreretan nabarmentzekoak dira transferentzia arruntak, diru-sarrera guztien ehuneko 47 egiten baitute. Halatan, udalaren 1999ko finan-

tziarioa honela banatzen da: ehuneko 64 transferentzia bidez, ehuneko 28 zerga bidez eta ehuneko 8 tasa bidez.

Transferentzia arruntak eta kapitalekoak kenduta, gainontzeko diru-sarrerak eta agente bete-arazlearen likidazioak ekitaldiaren bukaeran kontabilizatu dira.

Hori dena ikusita:

Gure gomendia da egunero kontabilizatzea diru-sarrerak, kontabilitatea kudeaketarako tresna egokia den aldetik, kontabilitate instrukzio orokorrari jarraikiz.

VI.2.1. Zuzeneko eta zeharkako zergak

178,9 milioi egiten dute aitorturiko eskubideek zuzeneko zergengatik, hau da, diru-sarrera guztien % 19; zeharkako zergek, berriz, 88 milioi, diru-sarrera guztien % 9, alegia.

1999an indarra zuten tipo eta ehunekoak, udalaren osoko bilkuran onetsi eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitziren, honako hauek dira:

	Toki Ogasunei buruzko Foru Legea (1999)	Udala
Landaluz kontribuzioa	0,1-0,8	0,3230
Hirilur kontribuzioa	0,1-0,5	0,2998
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (indizea)	1-1,4	1,4
Trakzio mekanikoaren ibilgailuen gaineko zerga	Legeak agindutakoa	Legeak agindutakoa
E.I.O.Z.	2-5%	
Obren egiazko kostua > milioi 1 PTA.		5%
Obren egiazko kostua < milioi 1 PTA.		4,5%
Lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga		
5 urte bitarte	% 2,4-3,4	3,4
10 urte bitarte	% 2,1-3,3	2,3
15 urte bitarte	% 2,0-3,3	2,3
20 urte bitarte	% 2,03,2	2,2
Zerga-zama	% 8-20	% 14

Udalak nahitaezko zerga guztiak ordainarazten ditu. Ez du eskatzen aukerako zergetako bat bera ere, nahiz eta onetsita izan etxebizitza hutsen gaineko zergari buruzko ordenantza. Karga tasak ezarritakoari jarraikiz onetsi eta argitaratu ziren.

Hona izan diren diru-sarrerak:

Kontzeptua	1998		1999		Aitortua, ehunekotan aurrekontuaren gainerik		Aitortutako diru-sarreraren aldaketa, ehunekotan	
	Aitortua (PTA. milakotan)	Kobratua (PTA. milakotan)	Aitortua (PTA. milakotan)	Kobratua (PTA. milakotan)	1998	1999	1998	1999
Landalur kontrib.	8	7	8	7	76,9	76,9	94,2	92,3
Hirilur kontrib.	97.106	86.746	103.931	90.256	102,2	103,9	89,3	86,8
Zirkulazioa	38.092	32.849	40.558	35.512	119,0	115,9	86,2	87,6
Plusbalia	0	0	15.270	8.899	0,0	152,7		58,3
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	17.211	15.056	19.171	17.747	86,1	95,9	87,5	92,6
Zuzenak	152.417	134.658	178.937	152.421	100,3	108,4	88,3	85,2
EIOZ	53.906	53.906	88.028	81.665	359,4	586,9	100,0	92,8
Zeharkakoak	53.906	53.906	88.028	81.665	359,4	586,9	100,0	92,8

1998an ez zen likidatu lurzoruaren balio-gehi-kuntzaren gaineko zerga. Bi urteko atzerapena dago horren betearazpenari dagokionez.

Diru-sarreraren arlo horri buruzko azterlanaren ondorioz, esaten ahal dugu zuzeneko eta zeharkako zergen kontrol eta kudeaketarako prozedurak egokiak direla, eta aurrekontu-betetzeko zenbatekoak ongi erregistratu direla.

Hala ere, egiaztatu dugu, EIOZaren likidazioetan, behin-behineko likidazioa besterik ez dela egiten, proiektuen bukaerako kostuaren agiririk edo obren amaierako ziurtagiririk eskatzen ez denez, ez baita behin betiko likidaziorik egiten.

Gai horren gainean indarra duen legedia bete-tzea gomendatzen dugu, gutxienez ere, obren amaierako kostu erreala egiaztatzea, EIOZ zerga-ren oinarria zehaztu ahal izateko.

Arrazoizko epe batean likidatzea Lurzoruaren balio-gehi-kuntzaren gaineko zerga.

VI.2.2. Tasak eta bestelako diru-sarrerak

Atal honetako eskubide aitortuek 74 milioi pezeta egiten dute, diru-sarrera guztien % 8, alegia.

Hona 1999ko ekitaldiko diru-sarrerak, kontzeptuen arabera xehaturik:

Kontzeptua	Behin-betiko aurrekontua	Aitortua	Aitortutako guztiaren gaineko aitortua: %	Behin-betiko aurrek. gaineko aitortua, %
Salmentak	50.000	108.459	0,1	216,9
Agiriak luzatu eta tramitatzea	300.000	402.350	0,5	134,1
Kaletik ibilgailuak kentzea	200.000	438.640	0,6	219,3
Hileta zerbitzuak	100.000	0	0,0	0,0
Argitalpenak	1.000.000	988.000	1,3	98,8
Oinarrizko gizarte zerbitzua	1.300.000	1.070.048	1,4	82,3
Gizarte zerbitzuak	1.131.850	1.306.014	1,8	115,4
Haur eskolak	22.500.000	21.047.032	28,4	93,5
Kultura	1.650.000	2.141.260	2,9	129,8
Establ. irekitzearen lizentzia	2.000.000	7.368.500	9,9	368,4
Zerbitzu ekonomikoak	1.500.000	1724.588	2,3	115,0
Obra eta hirigintza lizentziak	1.000.000	830.585	1,1	83,1
Oholtza eta harmailak	4.407.183	4.417.183	6,0	100,2
Hilerria	1.500.000	2.278.155	3,1	151,9
Mahaiak eta aulkiak	350.000	325.866	0,4	93,1
Txoznen aurrekontua	1.800.000	598.515	0,8	33,3
Horn. ust. enpresak	9.500.000	10.863.121	14,7	114,3
Pasabideak	3.250.000	3.778.751	5,1	116,3
Terrazak eta begiratokiak	900.000	867.500	1,2	96,4
Aurrekontu itxietako itzulketa	1.000	69.836	0,1	6.983,6
Tributuz bestelako isunak	200.000	2.189.600	3,0	1.094,8
Premiamenduen erreargua	2.500.000	1.536.131	2,1	61,4
Udal zinemako sarrerak	100.000	0	0,0	0,0
Telefono publikoak	250.000	301.760	0,4	120,7
Partikularren konturako obrak	250.000	55.280	0,1	22,1
Gazte eta erretiratuaren afaria	200.000	267.450	0,4	133,7
Erretir. egoitz. gast. % 40 itzultzea	250.000	146.558	0,2	58,6
Udaleko elementuak lagatzea	250.000	8.000	0,0	3,2
BOE deskalif. itzultzea	2.000.000	7.720.500	10,4	386,0
Bestelako diru-sarrerak	1.000.000	400.479	0,5	40,0
Bestelako diru-sarrerak. Euskera	196.953	495.155	0,7	251,4
Lurrazpiko tangak okup.	170.000	339.300	0,5	199,6
3.- Tasak eta bestelako diru-sar, guzt.	61.806.986	74.084.616	100,0	119,9

Tasen arloari buruz egindako azterlanak ondo-rioztatu du kontrol eta kudeaketarako prozedurak eta ekitaldiko diru-sarreren zenbatekoak egokiak direla. Halere, udalak ez ditu egiten tasa eta prezio publikoak oinarritzeko kostuei buruzko azterlanak –eta egin behar ditu–, eta hortaz:

Gure gomendioa da tasa eta prezio publikoak zerbitzuaren kostuari buruzko azterlanetan oinarritzea.

VI.2.3. Transferentzia arruntak eta kapitalekoak

448 eta 163 milioiko diru-sarrerak aitortu dira, hurrenez hurren, hau da, 1999ko ekitaldian aitortutako diru-sarrera guztien ehuneko 64.

Hona diru-sarrera horiek zehaztuta:

Kontzeptua	Behin-betiko aurrekontua	Aitortua	Kobratua	1	2
Estatu eta auton. erkidegoetatik	375.000	373.000	279.750	0,0	99,5
Nafarroako Foru Komunitatetik	436.346.977	445.345.255	417.507.445	46,6	102,1
Toki entitateetatik	2.500.000	2.210.681	2.210.681	0,2	88,4
4.- Transferentzia arruntak	439.221.977	447.928.936	419.997.876	46,9	102,0
Foru Komunitatetik	225.740.507	138.104.469	128.053.979	14,5	61,2
Kapital gastuak finantz.	92.160.000	24.582.456	24.582.456	2,6	26,7
7.- Kapital transferentziak	317.900.507	162.686.925	152.636.435	17,0	51,2
				64,0	

Eta hona transferentzia horien xedea:

Transferentzia arrunten funtsa	299.747.973	49,09
Funtzionarioen montepioa	33.502.790	5,49
Oinarrizko gizarte zerbitzua	20.359.899	3,33
Amalur Haur Eskoka	54.916.172	8,99
Gizarte enplegua, Infolan, Inem, eta abar	28.430.583	4,66
Euskera	8.943.023	1,46
Eskola kontzentrazioa	6123.608	1,00
Ibaia lehenaratzea	3.146.988	0,52
Drogamenpekotasun programak	3.101.841	0,51
Kultura jarduerak	2.652.759	0,43
Kirol jarduerak	1.550.000	0,25
Gazteentzako programak	564.199	0,09
Psikomotrizitate gela	558.194	0,09
Bake Epaitegiko gastuetarako diru-laguntza	373.000	0,06
Saihesbideko obrak	75.813.390	12,42
Kiroldegia	43.000.000	7,04
Hirigintza aprobetxamenduen lagapena	24.582.456	4,03
Udaletxea	2.793.037	0,46
Polizien irrati ekipoak	455.950	0,07
Guztira	610.615.862	100,00

Arlo horri buruzko azterlanaren ondorioz, esaten ahal dugu kontzeptu bakoitzarengatik aitortutako eskubideak eta kontrol eta kudeaketarako prozedurak egokiak direla.

VI.2.4. Ondareko diru-sarrerak

Atal honetan aitorturiko eskubideek 1,1 milioi pezeta egiten dute guztira, bankuko kontuetako interesengatik izandako diru-sarreretakoa hain zuzen ere.

VI.3. EGOERAREN BALANTZEA 1999ko ABENDUAREN 31n

VI.3.1. Balantzea - Ibilgetua

Balantzea egin zen egunean ez zegoen udalaren jabetzapeko ondasunen inbentario balioetsirik, kontabilitateko zifren bidez egiaztatzeko modukorik.

Gure gomendioa da udalaren jabetzako ondatsunen inbentarioa –egoeraren balantzeko kontabilitate saldoak justifikatzeko– egitea.

VI.3.2. Zordunak

Saldoa, 1999-12-31n, 138,9 milioi pezetakoa da, honela xehaturik:

Kontzeptua	98-12-31ko saldoa	99-12-31ko saldoa
Aurrekontu arrunteko zor garbiak	155,2	75,7
Aurrekontu itxitako zor garbiak	58,6	58,5
Aurrekontukoak ez diren zorrak	4,2	4,7
Guztira	218,0	138,9

Gure azterlanaren arabera, aurrekontu arrunteko zordunen atalak ongi jasotzen ditu kobratzeko dauden ekitaldiko eskubideak. Dena den, balantzea egin zen egunean, ekitaldi itxietako saldoetan ez ziren behar bezala biltzen aurreko ekitaldietako udalaren aldeko eskubideak.

Ekitaldi itxietako zordunak kontabilitateko saldo hutsak dira, agente betearazlearen azken likidazioa urtean behin egozteari zor zaizkionak. Ez dira adosten agentzia betearazleak kobratu dituela esaten diren zenbatekoak eta horien kontuko diru-sarrerak.

Ez da baliogabetu eta huts egindakotzat jotzen diren zenbatekoen, zergatien, dokumentu-euskarrien eta abarren inolako egiaztapenik egiten. Udalaren kontu horien saldoak ezin dira zordunekiko harremanetan oinarritu.

Gainera, agentzia betearazlearen zorretako eta kontu horien balantzeko saldoak ez datoz bat.

Gure ustez, informazioa bidaltzeko prozedura berria diseinatu behar da, dirubilletarako agente-ekin batera, banakako zordunen atala kontrolatu eta kontabilitatean islatzeko. Kobrantzen zenbatekoak bat etorri behar du egiazko diru-sarrerekin, eta, halaber, baliogabetzeak, kobratzeko ezintasuna eta kaudimen gabeziak banan-banan dokumentatu eta egiaztatu behar dira, kontabilitatea unean-unean egin behar da.

VI.3.3. Finantza-kontuak

Finantza-kontuetako saldoek 99 milioi pezeta egiten dute. Hona xehetasunak:

Kontzeptua	98-12-31ko saldoa	99-12-31ko saldoa
Bankuak	58	96
Epe laburreko maileguak	3	3
Guztira	61	99

Egindako azterlanak agertu du diruzaintzako kontrol eta kontabilitate sistema ez dela egokia. Halatan, udalak bere prozedurak osatu beharko lituzke, eta ondoko gomendioak bete:

- *Kontabilitate saldoak eta bankuko laburpenak aldiro berdinkatzea.*

- *Funtsak erabili ahal izateko sinadura baimen-duak gaurkotzea eta sinadura mankomunatua errespetatzea.*

- *Kutzako funtsak eta justifikatu beharreko aurrerakinak kontabilitate aldetik kontrolatu eta erregistratzea.*

VI.3.4. Epe luzeko zorrak

Epe luzeko maileguez 323,5 milioi egiten zuten balantzea egin zen egunean.

Hona 1999ko abenduaren 31n itzultzeke zuden maileguen ezaugarri nagusiak:

Deskripzioa	99-12-31n itzultzeke dagoen zenbatekoa	Batez besteko interes tasa 1999n %	Epemuga
Banesto obrak 97	27.102.991	3,21	2012
La Caixa obrak 97	22.780.212	3,44	2013
N.A.K. Colonia San Francisco	13.462.117	3,41	2008
Iruñeko Kutxa. Berfinantziak 94	154.220.883	4,00	2011
Iruñeko Kutxa. Inbertsioen int. 95	23.207.911	4,08	2010
Banco Santander. Inbertsioak 96	32.770.195	3,13	2011
Banco Crédito Local Inbertsioak 98	50.000.000	3,30	2014
Guztira	323.544.309	3,51	

Egin dugun azterketaren eta bankuko zirkulazioaren arabera, arrazoikoak dira gure ustez atal honetako saldoak.

VI.3.5. Epe laburreko zor eta hartzekodunak

Epe laburreko zorrek 104 milioi pezeta egiten dute, aurreko ekitaldian baino 96 milioi gutxiago; saldo horretan sartzen dira balantzeara egin zen egunean ordaintzeke zeuden atxikipenak islatzen ez dituzten entitate publiko hartzekodunen 11,8 milioi.

Gure ustez, atal honetako saldoak doitu egin beharko dira, saldoa 12 milioitan gutxituz fidantza eta aurrerakinak erregularizatzeko.

VI.3.6. Ordena kontuak

1999ko abenduaren 31ko balantzean 35 milioiko saldoa azaltzen da, kontabilitateko nagusiarekin bat ez datorrena.

Saldoa aztertuta ikusten dugu ez dituela islatzen balantzeara egin zen eguneko abal eta bermeekin.

Gure gomendioa da kontabilitateko saldoen azterketa eta garbiketa egitea eta balantzeko kutxa udalaren aldeko berme biziei doitzea.

VI.4. ERAKUNDE AUTONOMOIA. UDALAREN KIROI PATRONATUA.

Patronatuaren estatutuak osoko bilkuran onetsi zituen Aurrerabiako Udalak 1998ko uztailean.

Kirol patronatuak kontabilitate sistema berekia du, entitate pribatu baten kontabilitatean oinarritua.

Ekitaldiaren amaieran aurrekontu-kontabilitate publikoko sistemari jarraikiz bertsifikatzen da kontabilitate hori, baina soilik gastuen alorra.

Ekitaldiko gastua 85,8 milioikoa izan da guztira, eta diru-sarrerak, aldiz, 82,5 milioikoak.

Kirol patronatuan egin dugun azterketaren arabera, 1999ko ekitaldiko gastu eta diru-sarrerak

ongi islatzen dute ekitaldiko jarduna, baina, aurrekontuan horretarako diru nahikorik ez dagoenez, erregistratu gabe daude bi milioi – errentamendu eta langileen gastuetakoak–, entitatearen kontabilitatean aplikatzeke dauden ordainketa gisa erregistratu direnak.

Patronatuak kontrol eta kontabilitate prozedurak osatu beharko ditu, eta ondoko gomendioak bete:

- *Patronatuan erabiltzen den kontabilitate sistema udalaren ondare eta aurrekontu kontabilitateara doitzea.*

- *Urteko aurrekontu eta likidazioak eta udalaren zein plantilla organikoa batera onetsi behar dira.*

- *Udalaren kontu-hartzaitzaren bitartez ezarritzea beharrezkoak diren kontrol eta esku hartzeko tresnak, baliabideen aplikazio eta likidazio egokia bermatzearen.*

VI.5. HIRIGINTZA

Hirigintza arloan indarra duen araudia Hiri Antolamendurako Plan Orokorra da, 1996ko uztailearen 4an onetsi eta harrezkero zenbait alditan aldatu dena.

Hirigintza planeamenduko kudeaketa eta tramitazio teknikoak arkitekto batek eta aparejadore batek egiten dute.

Aurrerabiako Udalak ez ditu eratu ez udalaren lur ondarea ez urbanizatu gabeko lursail eta orubeen erregistroa ere.

Gure gomendioa da kontabilitate eta hirigintza arloko betebeharrak horiek betetzea.

Lan hau egiteko ardura izan duen auditore Francisco Javier Sesma Masa jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

GEHIGARRIA. ATARRABIAKO UDALAREN FINANTZA-EGOERA 1999ko ABENDUAREN 31n

Ondorengo koadroan 1999. urteko Atarrabiako Udaleko ratio edo adierazle nagusiak erakusten dira, eta baita 1998ko ekitaldikoak ere.

ATARRABIAKO UDALA			
Adierazleak	1999	(1) 1998	Aldaketa % 1999/1998
Aurrekontuko superabita/defizita (milioitan)	62	7	740
Diru-sarrerak, bizilaguneko (pezetatan)	101.801	91.986	11
Gastuak, bizilaguneko (pezetatan)	95.222	91.186	4
Finantza-zama, bizilaguneko (pezetatan)	3.340	3.551	-6
Tributu bidezko per capita (pezetatan)	36.363	32.475	12
Gastu arrunta, bizilaguneko (pezetatan)	66.566	64.158	4
Kobrانتzen betetzea (ehunekoa)	% 92	% 82	12
Ordainketen betetzea (ehunekoa)	% 93	% 79	18
Zorpetze-maila (ehunekoa)	% 4	% 5	-18
Zorpetze-muga (ehunekoa)	% 22	% 15	51
Zorpetze-ahalmena (ehunekoa)	% 18	% 10	80
Aurrezki garbia (ehunekoa)	% 18,54	% 10,02	85
Langileria-indizea (ehunekoa)	% 47	% 47	0
Inbertsio-indizea (ehunekoa)	% 28	% 27	2
Dirulaguntzekiko menpekotasuna (ehunekoa)	% 64	% 58	10
Gatu arrunta/gastua, guztira (ehunekoa)	% 70	% 70	-1
Diru-sarrera arrunta/ diru-sarrera, guztira (ehunekoa)	% 83	% 80	4
Biztanleen kopurua, Udaleko erroldatik hartua (1)	9.379	9.192	2

(1) Populazioa 1998ko abenduaren 31ko erroldaren arabera eta 1999ko abenduaren 31ko erroldaren arabera.

Azterlan horretatik honako hau ondorioztatu da:

- 1999ko ekitaldian, 1998ko ekitaldiarekiko 55 milioitan areagotu da aurrekontuko emaitza, diru-sarrera arruntak gastu arrunten gainera egon baitira. Aldiz, kapital gastuak handitu egin dira, inbertsioetan gehiago gastatu baita, eta kapital diru-sarrerak gutxitu egin dira, ez baita aurreikusitako mailegua hitzartu.

- Bizilagun bakoitzeko diru-sarrerek ehuneko 11ko igoera izan dute; gastuek, ordea, ehuneko 4koa; horregatik ere areagotu da emaitza.

- Bizilagun bakoitzeko finantza-zama % 6 murriztu da, ekitaldian mailegurik hitzartu ez izanaren eta 1998ko maileguaren gabezialdiaren ondorioz. Finantza merkatuaren egoera dela-eta behera egin dute interes-tasek, eta horrek mailegu indardunen finantza gastuek behera egitea ekarri du.

- Biztanle bakoitzeko tributu bidezko diru-sarrerek % 12 egin dute gora, batez ere EIOZ zergako diru-bilketa igo delako.

- Zorpetze-mugak gora egin du 1999an, batez ere diru-sarrera arruntak –berezi tributu bidezko diru-sarrerak eta toki ogasunen funtseko parte hartzea– hazi direlako, eta funtzionamendu gastuetako igoerak ez du hori osotara berdindu. Zorpetze mailak, aldiz, behera egin du, eta horrek, zorpetze mugaren igoerarekin batera, udalaren aurrezki garbiaren igoera esplikatzen du.

- Langileria-indizeak bere horretan dirau, eta horrek esplikatzen du udalak egindako gastuen ehuneko 47. Inbertsio-indizeak –gastuaren ehuneko 28–, aldiz, apur bat egin du gora.

- Udalaren baliabideen ehuneko 64 beste entitate batzuetako transferentzietatik dator, eta horrek areagotu egiten du diru-laguntzekiko menpekotasuna.

1998 eta 1999ko abenduaren 31ko finantza egoera dela-eta, nabarmentzekoak dira –milioitan– ondoko adierazleak:

Adierazleak	1999	1998
Diruzaintzaren gerakina	71	23
Epe luzeko zorra	324	343

Alegia, 1999ko diruzaintzako gerakinak epe luzeko zorraren ehuneko 22 egiten du (ehuneko 7 1998an); udalak aurreikusitako inbertsioei aurre egiteko finantza iturri eskasa denez, udala mailegu berriak hitzartu beharrean da.

1999ko abenduaren 31ko epe luzeko zorraren zenbatekoa udalak bere gain hartzeko modukoa da, eta ekitaldian izan den aurrezki gordinaren halako 18 eta aurrezki garbiaren halako 22 egiten du.

Hori dela-eta, udalak handitu egin du 1999an zehar diruzaintzako gerakina eta gutxitu egin du epe luzeko zorra. Halaber, aurrezki gordina eta garbia igo egin dira –hala balio absolutuetan nola

erlatiboetan-, batez ere diru-sarrera arruntak funtzionamendu gastuak baino gehiago igo direlako.

1999ko bilakaera hori udalaren finantza egoeraren onerako izan da, eta hortaz, uste dugu joera horri eutsi behar zaiola, hots, diru-sarrera arrunt gehiago sortu behar dela eta funtzionamendu gastuei eutsi, baldin eta zorpetze ahalmena mantendu eta aurreikusitako inbertsioak finantzatu nahi badira.

Hona 1999ko abenduaren 31n itzultzeke dauden maileguei buruzko jakingarri nagusiak:

Deskripzioa	99-12-31n itzultzeke dagoen zenbatekoa	Batez besteko interes tasa 1999n %	Epemuga
Banesto obrak 97	27.102.991	% 3,21	2012
La Caixa obrak 97	22.780.212	% 3,44	2013
N.A.K. Colonia San Francisco	13.462.117	% 3,41	2008
Iruñeko Kutxa. Berfinantziak 94	154.220.883	% 4,00	2011
Iruñeko Kutxa. Inbertsioen int. 95	23.207.911	% 4,08	2010
Banco Santander. Inbertsioak 96	32.770.195	% 3,13	2011
Banco Crédito Local Inbertsioak 98	50.000.000	% 3,30	2014
Guztira	323.544.309	% 3,51	

Azkenik, ondoko taulan erkatu egiten dira ratio jakin batzuk direla-eta udalak 1998 eta 1999 urtetan emandako informazioa eta Nafarroako udalen 1998koa.

Adierazleak	5.000-10.000 biztanleko udalak 1998. urtea	Atarrabia 1999	1998
Gastu arrunta, biztanleko (pezetatan)	74.039	66.566	64.158
Diru-sarrera arrunta, biztanleko (pezetatan)	87.380	84.241	73.420
Tributu bidezko diru-sarrerak, biztanleko (pezetatan)	46.197	36.363	32.475
Zorpetze-maila (ehunekoa)	% 9	% 4	% 5
Zorpetze-muga (ehunekoa)	% 18	% 22	% 15
Zorpetze-ahalmena (ehunekoa)	% 9	% 18	% 10

(1) Datu hauek Toki Administrazioako Departamentuak igorri zituen eta Ganbara honek Toki sektore publikoari buruzko 1998ko txostenean eman zituen argitara.

(2) Gogoratzten dugu, bereziki, zerbitzu publikoak emateko modua eta kalitatea.


Konparazio horren (2) mugak gorabehera, hauxe nabarmendu behar da:

- Atarrabiako biztanle bakoitzeko gastu eta diru-sarrera arrunta Nafarroan biztanle-tarte bera duten udaletakoena baino txikiagoa da.

- Atarrabiako biztanleek Nafarroan biztanle-tarte bera duten udaletakoek baino ehuneko 27 gutxiago ordaintzen dute tributu bidez.

- Zorpetze muga eta ahalmena batez bestekoa baino handiagoa da, eta zorpetze maila, aldiz, txikiagoa.

**I. ERANSKINA. ATARRABIAKO UDALAREN ORGANIGRAMA
1999ko ABENDUAREN 31n.**



Guztira 86 langile:

39 funtzionario

19 lan kontratudun finkoak

20 aldi baterako lan kontratudunak

7 administrazio kontratudunak

1 behin-behinekoa, izendapen askekoa

Iturria: Kontuen Ganbarak egina. Udalak ez dauka organigramarik.

II. ERANSKINA. ERABILITAKO RATIOEN DEFINIZIOA

- Diru-sarrereren betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea = $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea = $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila = $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea = $\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea = $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna = $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko = $\frac{\text{Tributu bidezko diru-sarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$

ATARRABIAKO UDALAREN ALEGAZIOAK

Labur bada ere, txosteneko alderdi zehatz batzuei buruzko ñabardurak egin edo alderdi horiei buruzko azalpenak eman nahi dira, txostena hobeki ulertzen lagunduko duen barne informazioa ematearren.

IV. IRITZIA

IV.2. ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Ibilgetua: "Inbentarioa" egin zen 1994ko ekitaldian sektore publikoko kontabilitate plan orokorra abiatu zen, baina denbora joan denbora etorri balioa galdu du, ez baita behar bezalako mantentzerik egin. Aplikazio informatiko egokia behar da.

Egoera balantzeak akatsak ditu ibilgetuaren alorrean. Horiek konpontzeko kontabilitate sistema integrala ezarri nahi da 2001eko ekitaldian.

Zordunak: ez da egin izan agentzia betearazle-
ra eramandako zordunen banan banakako jarraipena.

Neurriak hartu dira diru-bilketako datuak gaurkotzeko eta informazioa gurutzatuz horiek euskarri informatikoan mantentzeko.

Diruzaintza: giza baliabideen eskasiak ezinezkoa egiten zuen aldian aldiko kontaktak egin ahal izatea ekitaldian zehar. Horiek egin ahal izateko "gertatu ahala" egin behar da kontabilitatea (nominak eta diru-bilketako diru-sarrerak esaterako).

V. FINANTZA EGOERA-ORRIAK

Egoera balantzea: beharrezkoa da garbiketa egitea, datuak irudi fidelari doitzeko.

VI. IRUZKIN, ONDORIO ETA GOMENDIO OROKORRAK

Oro har, konturatzen gara gabeziak ditugula barne kontrol eta antolakuntza arloetan, konpontzeko modukoak direnak ekonomia eta finantza alorrean giza baliabide egokiak jarriz gero eta aurrekontua betetzeko oinarriak estu betez gero. Une honetan, behin-behinekoz bada ere, indartu egin dugu langileria alorra kontabilitateko administrari laguntzaile batekin eta plusbaliaen afera gaurkotzeko lanaldi erdiko beste batekin.

Atarrabia, 2001eko maiatzaren 17an

Alkate udalburua: Miguel Alfonso Ucar Zaratiegui

Mendigorriko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko uztailaren 3an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Mendigorriko Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2001eko uztailaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mendigorriko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (21. or.).
- II. Helburua (21. or.).
- III. Norainokoa (21. or.).
- IV. Finantza egoera-orriak (22. or.).
- V. Iritzia, ondorioak eta gomendioak (25. or.).
 - V.1. 2000ko aurrekontuaren likidazioa (25. or.).
 - V.2. Ondare-egoeraren agerpena 2000ko abenduaren 31n (25. or.).
 - V.3. Legezketasuna (25. or.).
 - V.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa (25. or.).

Alegazioak (26. or.).

I. SARRERA

Mendigorriko Udalak, Erriberriko Merindadean baitago, 904 biztanle zituen 2000ko abenduaren 31n.

Mendigorriko Udala Izarbeiberko Mankomunitatean dago (hiri hondakin solidoen tratamendua, ur hornidura eta oinarritzko gizarte zerbitzua) eta ez du inolako erakunde autonomorik jarduteko.

Ondoko taulan udalaren 2000ko zenbateko nagusiak jaso ditugu:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak (pezetak milioitan)	Aitorturiko eskubideak (pezetak milioitan)	Langileak abenduaren 31n
Udala	82	126	4

Udalak idazkari bat eta lanaldi partzialeko administrari bat eta bi albiente ditu.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Mendigorriko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastu eta diru-sarrera aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateari aplikatzeko den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurretik aipatutako legeek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, administrazio-kontratazioari nahiz hirigintza-kudeaketari buruzko arauak eta Nafarroako toki-enteei orokorki aplikatzekoak zaizkien gainontzeko arauak.

Kontabilitate eta aurrekontu gaitako araubide juridikoa Nafarroako toki administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuetan ezartzen da.

Txostenak helburu du gure iritzia agertzea honako puntu hauei buruz:

- a) Mendigorriko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- b) 2000ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera islatzea, oro har onartzen diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.
- c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari lotua egon ote den.
- d) Zein zen udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera 1999ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganbarak Mendigorriko Udalaren –aurrerantzean udala– 2000ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalari buruzko lanak hauxe izan du arretagai: diru-sarrerei eta gastuei buruzko atal ekonomikoak, egoeraren balantzea aztertzea, diruzaintzako gerakinak, emaitzak eta antolaketari, kontabilitate-

ari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertzea.

Espainiako Estatuko kanpo kontrolerako organo publikoak koordinatzeko batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta araei jarraituz burutu dugu lana eta halaber, egoeraren arabera beharrezkotzat jo ditugun froga guztiak ere egin ditugu.

Udalaren antolaketa, barne-kontrola, eragin-kortasuna eta efizientzia hobetzeko egokitzen jo ditugun iritzi eta gomendio orokorrak bildu ditugu txostenean.

Azterlana 2001eko apirilean gauzatu da.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko langileei.

IV. FINANTZA EGOERA-ORRIAK

- Udalaren 2000ko ekitaldiko gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa.
- 2000ko abenduaren 31ko egoerari buruzko balantzea.
- Emaizak.
- Diruzaintzako gerakina.

Mendigorriko Udala 2000

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetze-maila
(pezetak milakotan)

	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Alda- ketak	Behin-behineko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Ehunekoa
Zuzeneko zergak	1	18.090		18.090	18.885	104,39
Zeharkako zergak	2	7.000		7.000	8.157	116,52
Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	3	5.355		5.355	6.889	128,65
Transferentzia arruntak	4	32.507		32.507	34.519	106,19
Ondare eta herri-ondasunetako diru-sarrerak	5	6.089		6.089	8.680	142,55
Inbertsio errealak besterentzea	6	20.000		20.000	0	0,00
Administrazio Orokorrek entitateari emandako transf.	7	59.661	12.000	71.661	48.798	68,09
Finantza-pasiboak	9	32.446		32.446	0	0,00
Diru-sarrerak, guztira		181.148	12.000	193.148	125.928	65,20

Gastuen aurrekontuaren betetze-maila
(pezetak milakotan)

	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Alda- ketak	Behin-behineko aurreikuspena	Likidaturiko betebeharrak	Ehunekoa
Langileen ordainsariak	1	30.029	0	30.029	27.053	90,09
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	2	32.247	0	32.247	28.398	88,06
Finantza-gastuak	3	2.350	0	2.350	59	2,53
Transferentzia arruntak	4	5.980	0	5.980	4.471	74,77
Inbertsio errealak	6	81.793	40.935	122.727	13.854	11,29
Kapital transferentziak	7	24.100	-3.154	20.946	6.041	28,84
Finantza-pasiboak	9	2.600	0	2.600	2.589	99,57
Gastuak, guztira		179.099	37.781	216.879	82.465	38,02

Mendigorriko Udala

2000-12-31ko egoera balantze-inbentarioa (pezetak milakotan)

AKTIBOA	Zenbatekoa 2000	Zenbatekoa 1999 (*)	PASIBOA	Zenbatekoa 2000	Zenbatekoa 1999 (*)
IBILGETUA	102.400	92.109	FUNTS BEREKIAK	178.297	124.173
Ibilgetu materiala	74.185	72.203	Ondarea eta erreserbak	167.162	94.233
Ibilgetu ez-materiala	0	0	Emandako ondasun eta eskubideak	0	0
Azpiegiturak eta erabilera orokorr. ondasunak	18.682	13.544	Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	11.135	29.940
Herri-ondasunak	9.533	6.362			
Ibilgetu finantzarioa	0	0	EPE LUZEKO ZORRAK	40.656	43.244
Lagap. eta atxik. bidez jasotako ond. eta eskub.	0	0	Jasotako jesapen, mailegu, fidantza eta gordailu.	40.656	43.244
ZIRKULATZAILEA	139.964	95.516	EPE LABURREKO ZORRAK	23.411	20.207
Itxitako aurrek. eta aurrek. kanpoko zordunak	5.964	5.110	Itxitako aurrek. eta aurrek. kanpoko hartzekod.	19.512	16.610
Aurrekontuko zordunak	5.283	3.110	Aurrekontuko hartzekodunak	3.900	3.597
Kontu finantzarioak	128.717	87.296			
AKTIBOA, GUZTIRA	242.364	187.625	PASIBOA, GUZTIRA	242.364	187.625

(*) Ekitaldi ez auditatua

2000-12-31ko aurrekontu emaitzaren egoera
(pezetak, milakotan)

Kontzeptua	1999ko ekitaldia (*)	2000ko ekitaldia
Aitorturiko eskubide garbiak	123.571	125.928
Aitorturiko betebeharrak	82.977	82.474
Aurrekontu emaitza	40.594	43.454
Doikuntzak:		
Finantziario positiboaren desbiazioa	10.986	54.447
Finantziario negatiboaren desbiazioa	0	0
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gast.	0	0
Merkataritza eragiketen emaitza	0	0
Aurrekontu emaitza doitu	29.608	-10.993

2000-12-31ko diruzaintzako gerakinaren egoera
(pezetak, milakotan)

Kontzeptua	1999ko ekitaldia (*)	2000ko ekitaldia
(+) Ekitaldi bukaeran kobratzeke dauden zordunak	4.351	6.238
+ Diru-sarrren aurrekontua: indarreko ekitaldia	3.110	5.283
+ Diru-sarrren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	4.751	5.304
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	358	660
- Kobratzen zailak diren eskubideak	3.869	5.009
(+) Ordaintzeke dauden betebeharrak	20.207	23.411
+ Gastuen aurrekontua: indarreko ekitaldia	3.597	3.900
+ Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	15.562	17.788
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	1.049	1.724
(+) Diruzaintzako funts likidoak	87.296	128.717
Diruzaintzako gerakina, guztira	71.440	111.543
Finantziario atxikiko gastuei atxikitako diruzaintzako gerakina	0	43.461
Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina	10.986	10.986
Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina	60.454	57.096

(*) Ekitaldi ez auditatua

V. IRITZIA, ONDORIOAK ETA GOMENDIO- AK

Egindako fiskalizazioaren esparruan, Mendigo-
rriko Udaleko 2000ko ekitaldiko egoera-orriak
aztertu ditugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko
Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordina-
tzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren
auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako
iritzi hau agertuko dugu:

V.1. 2000ko AURREKONTUAREN LIDIKA- ZIOA DELA-ETA

Erantsi dugun 2000ko aurrekontuaren likidazio
egoerak behar bezala agertzen ditu, fiskalizatuta-
ko ekitaldian udalak egindako eragiketa guztiak.

V.2. 2000ko ABENDUAREN 31ko ONDARE- EGOERAREN AGERPENA

2000ko abenduaren 31ko egoeraren balantze-
ak udalaren ondare-egoera behar bezala agertzen
du, bi salbuespenekin:

- Inbentarioak ez ditu udalaren ondasun guz-
tiak jasotzen, herri-ondasunak eta 1999 eta
2000ko ekitaldietako altak falta baitira.
- Aurreko ekitaldietako zordunen saldoan 15,5
milioiko doikuntza egin behar da, ez baititu isla-
tzen udalaren zor errealak.

V.3. LEGEZKOTASUNA

Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa
legezkotasun printzipioari jarraikiz egiten da oro
har, baina administrazio-kontratazio alorreko eta
kontabilitate eta aurrekontu alorreko arauak urratu
direla ikusi ahal izan dugu.

V.4. EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Mendigorrriko Udalak 43 milioi pezetako supe-
rabita izan du 2000ko ekitaldian. 2000ko aben-
duaren 31ko diruzaintzako gerakina 111,5 milioi-
koa zen, honela banatuta: 54,5 milioi herri-lurren
erosketa finantzatzeko eta 57 milioi gastu oroko-
rretarako. Epe luzerako zorra 40,6 milioikoa da.

Ondoren, konparatu egiten dira ratio jakin
batzuk direla-eta Mendigorrriko Udalaren datuak
eta 1.000 biztanle baino gutxiagoko udal nafarren
1998ko datuak (1):

Ratioak	Nafarroako toki entitateak 1998an (1-1.000 bizt.)	Mendigorrriko Udala 2000
Gastu arrunta biztanleko (pezetak)	61.182	66.286
Diru-sarrera arrunta biztanleko (pezetak)	93.392	85.321
Tributu bidezko diru-sarrera biztanleko (pezetak)	39.441	37.534
Zorpetze-muga	% 36	22
Zorpetze-maila	% 7	3
Zorpetze-ahalmena	% 29	19

(1) Datu hauek Toki Administrazio Departamentuak igorri zituen
eta Ganbara honek Toki Sektore Publikoari buruzko 1998ko txos-
tanean eman zituen argitara, eta eskuragarriak diren azkenak
dira.

Mendigorrriko Udalak biztanle tarte bereko uda-
lek baino gastu arrunt handiagoak ditu biztanle
bakoitzeko, eta diru-sarrera arrunt gutxiago.

Bere zorpetze maila txikiagoa da, baina zorpe-
tze muga txikiagoa duenez, zorpetze ahalmena
ere txikiagoa da.

Ondorioz, Mendigorrriko Udalak egoera garbia
du 2000ko abenduaren 31n: zorpetze maila baxua
du eta badu zorpetzeko ahalmena, baina sortzen
duen aurrezpen garbia ez da handiegia. Kontuan
izan behar da inbertsio handiak egiteko proiektuak
dituela egiteke –igerilekuak, kiroldegia eta gizarte
etxea–, 2000ko ekitaldiko aurrekontuetan jaso
zirenak.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor gisa**, esan
dezakegu Mendigorrriko Udalak administrazioaren
ikuspuntutik egoki kudeatzen dituela aurrekon-
tuak, baina hobetu egin behar ditu kudeaketa eta
kontrol prozeduretako alderdi batzuk. Hona gure
gomendioak:

- *Dokumentazio euskarria eta administrazio
espedienteen artxiboa hobetzea.*

- *Langile ez funtzionarioei maila eta antzinata -
sun ordainsariak ez ordaintzea, eta horien ordain -
sariak ezartzeko legeriaren arabera beste bide
batzuk erabiltzea.*

- *Ordaintzeke dauden osasun laguntzen eta
montepioko atxikipenen saldoa aztertu eta garbi -
tzea.*

- *Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea
kapituluko gastu bakoitza behar bezala egozte
eta, betiere, kontratua eta PFEZaren atxikipena
egitea udalari emaniko zerbitzu profesionalak
ordaintzeko.*

- *Kontratuei buruzko Foru Legean ezarritako
prozedurak errespetatzea obren hasierako kontra -
tuak aldatzean.*

• *Legeari jarraitzea zorrak kobratzeko boronda - tezko ordainketa epea iragan denean, aplikatu beharreko errenergua aplikatuz, eta zordunen kontrola hobetzea, horien zerrendak eginez.*

• *Udal igerilekuen erabilera arautzeko orde - nantza taxutzea, eta zerbitzu hori dela-eta lortuta - ko diru-sarrereren kontrol egokia egitea.*

• *Behar bezala dokumentatzea Nafarroako Gobernuak zein Europar Batasunak herri-lurren aprobetxamendua dela-eta emandako diru-laguntzak (PAC izenekoak).*

Lan hau egiteko ardura izan duen auditore Francisco Javier Sesma Masa jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2001eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

MENDIGORRIKO UDALAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Mendigorriko Udalak hainbat eraikin jarriko ditu salgai –medikuaren eta maisuen etxeak– eginen dituen inbertsioak finantzatzeko: igerilekuak, futbol zelaia, azpiegiturei buruzko hiru urteko plana eta gizarte etxea.

Udalarenak bailiren kudeatu ziren 2000n igerilekuak, eta asmoa dugu, bai, ordenantzak taxutu eta onesteko.

Dokumentazio euskarria eta administrazio espedienteen artxiboa hobetzea dela-eta, berehala ekinen diogu hobekuntza horri.

Langile ez funtzionarioei maila eta antzinatasun ordainsariak ordaintzearena gutxi barru bukatuko da, lanpostuko osagarria ordainduko baitzaie horien orde.

Ordaintzeke dauden osasun laguntzen eta montepioko atxikipenen saldoa hurrengo ordaintzen bidez garbituko dira.

Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea kapituluko gastu bakoitza behar bezala egozten saiatuko gara eta, betiere, kontratua eta PFEZaren atxikipena eginen ditugu udalari emaniko zerbitzu profesionalak ordaintzeko.

Kontratuei buruzko Foru Legean ezarritako prozedurak errespetatuko ditugu obren hasierako kontratuak aldatzean.

Legeari jarraituko diogu zorrak kobratzeko borondatezko ordainketa epea iragaten denean, aplikatu beharreko errenergua aplikatuz, eta zordunen kontrola hobetuko dugu, horien zerrendak eginez.

Behar bezala dokumentatuko ditugu Nafarroako Gobernuak zein Europar Batasunak herri-lurren aprobetxamendua dela-eta emandako diru-laguntzak (PAC izenekoak).

Nafarroako Kontuen Ganbarak Mendigorriko Udalaren 2000ko ekitaldia fiskalizatzeko txostenean jasotzen diren gomendioak direla-eta prestatu eta igorri dugu idazki hau.

Mendigorrian, 2001eko ekainaren 18an

Alkate udalburua: M^a Asunción Fernández Izu



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--